

Euskadi Ta Askatasunaren Agiria Euskal Herriari

garrantzitsuago bat ematera, etorkizuneko Euskal Herri horren zutoinak jarri behar ditugu, gure etxea non eraikiko den argi eta garbi zehaztea da dagokigun erronka. Ez baitago bi edo hiru Euskal Herri. Bakarra da, bere berezitasun eta errealitate ezberdinekin, linguistikoak, sozialak, ekonomikoak, are ohiturazkoak ere. Horixe baita herri bat!

Abertzale, demokrata eta aurrerazale guztion artean errealitate desberdin horiek kontutan hartuz, Euskal Herri osoa bere baitan hartuko duen marko politiko berri baten eraikuntzan aitzindaritzatza lana egitea dagokigu. Eta lanbide pizgarri horretan Euskal Herri osoko gizarte eragile guztiek dute lekua, hitza eta zeregina.

Subiranotasunaren eskuratzeari ez da ezkongarria Espainia eta Frantziaren sendotzea dakarren politikagintza interesatu eta partidistarekin. Amaitu behar dira deblauki Espainiaren kolaborazio gune eta itun guztiak, gure herria ekonomikoki menpeko mantentzen duten sekretuzko azpi-tratuak.

Dugun lehen zeregina Euskal Herri gisa «pentsatzen» hastea da. Guztion artean. Eta gure herriaren zinezko egoera ekonomiko, linguistiko, kultural eta soziala zein den barneratzea. Eta ondotik, Euskal Herri osoa kontutan hartuko duen proiektu orokorrak bultzatu, bai hizkuntza eskubideei dagokionez, bai lurralde antolaketari dagokionez, bai ekonomi garapen zein eskubide sozialen inguruan. Gutxieneko hitzarmenak eskuratu behar dituzte Euskal Herriaren subiranotasunaren aldeko indarrek.

Eta hein berean, guztion zeregina izanen da proiektu horren etsai diren eta izaten jarraituko dutenei aurre egitea. Armen erabilera gaitzesten dutenek hain goraiatua duten eta hain gutxitan erabiltzen den gizarte jazarpenaren ordua da. Euskal Herriaren egoeraren aurrean begiak ezin itxi genituela genioen ere hasieran. Euskal Herrian «espezio egoera» bizi du gizartearen zati haundiak, opzio politiko zehatz baten aurka jotzearen aitzakitan Euskal Herriaren etorkizuna da baldintzatzen ari dena. Bultzatzen ari garen gisako proiektu adostu batek, Espainia eta Frantziaren aurkakotasunak eragingo dizkigun ondorioak ere elkarrekin batera jasatea ekarriko digu. Zalantzarik gabe. Horretarako ere ausardia behar da. Ausardia behar da atzeritar ditugun indar armatu oro gure herrian soberan daudela esatetik, horiek kanporatzeko egin beharreko lan haundi eta txiki guztiak nekagabe aurrera eramateko. Bada ordua beraz, egiten dena, ongi ala gaizki, kritikatzetik, egiten ez denaz jabetu eta lan horietan murgiltzekoa.

• Zer ez den ETArekin urrats hau

Gure erabaki eta deialdi zehatza aipatu aurretik, azken egunotako espekulazio, espektatiba eta deklarazio ugariak sortu dezaketen nahasketatik, ezinbesteko deritzogu aurrean dugun fase politikoak zer ez den zehaztea. Ez bait da batere zuzena inor engainia dadin politiko profesionalen hitz-joko horiek.

Helburua ez da hamarkada luze bateko Espainiaratzea gidatu duen Ardanzak bere plan partzialen proposatzen duen «bakeratzea», are gutxiago «bakeratze» horri «itxura» politikoa ematea Ezker abertzalearen «kontzientzia lasaigarri» edo autoengainurako. Hori baino ausartago izan beharra dago une honetan. Egoera guztiz berri baten aurrean bait gaude.

Gizartea engainiatzen arituko dira Euskadi Ta Askatasunaren urrats sakon honen atzean «normalizazioa»! egungo markoaren egonkortzea eta ezer aldatu gabeko bake faltsua bilatzen dutenak. Euskal Herriko arazoa ETAk etsaiari borroka armatuaren bidez aurre egiten diola bezain gezurra izango da hori. Ez da bakerik izango ez bada Euskal Herriaren eskubideetan oinarritzen. Hori baita bizi dugun gatazkaren muina, koxka edo mamia: Euskal Herriari bere eskubideak ukatzen zaizkiola, ez garelako geure buruaren jabe gizartea nahi dugun moduan antolatzeko.

ETAk bere urrats nagusia emana du, besterik da orain hor sortzen den tartean aurrera egitea, eta ausartki gainera. Esan dugu arestian, ez da epelkeria eta kalkulu egoista edota partidistarako garaia: Euskal Herria dugu irabazteko.



■ «Euskal Herriaren egoera, dauden aukerak eta subiranotasunentz abiatzeko nahia kontutan hartuz Euskadi Ta Askatasunak bere aldetik mugarik gabeko eraso armatuen etenaldi orokor bati ekiteko asmoa jakinarazten du»

■ «Jasoko dugun erantzuna emandako urratsaren tamaina eta neurri berekoa izango delako esperantzaz beterik, jakinarazi nahi dugu une honetatik aurrerako gertakizun eta urratsek aginduko dutela etenaldi horren behinbetirakotasuna»

• Adierazpena

Guzti horiek kontutan harturik, ETAk, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak honoko adierazpen publikoa egiten du euskal gizartearen aurrean eta orohar nazioarteko iritzirik publikoa jakinaren gainean jarritz:

1.-Euskal Herriaren eraikuntzan herritar guztion lana eta esfortzua ezinbestekoa izanik ere, orainartean Ezker abertzaleak soilik erantzun diola jarrera argi eta sakon batez zeregin horri. Bide luze, gogor eta korapilatsua ibili behar izan dugu gaur arte, zeregin horren ordainetan, errepresioa eta era guztitako erasoak jasanez. Baina egindako lan horri esker ere gaur egun aukera paregabea ikusten dugu aurrerantzean Euskal Herriaren independentzia bidean ardura eta esfortzuak konpartitu eta elkarlanerako adostasun eta bilgune berriak sor daitezkeen. ETAk, bere aldetik, adostasunezko bide berri horretan aurrera egiteko erabateko borondatea duela agertarazi nahi du eta hein bereko borondate eta esfortzuen gauzapean beha dagoela jakinarazten du.

2.-Zentzu horretan, ETAk dei publikoa egiten die alderdi politiko, sindikatu, kultur bilgune, gizarte antolakunde eta orohar euskal herritarrei aurrean dugun fase politikoa subiranotasunarena izan dadin beharrezko konpromezuak hartu eta urrats zehatzak eman ditzaten.

3.-Urrats guztien artean garrantzia haundienekoa gaur egungo zatiketa instituzional eta estatuzkoa gainditzebidean jartzea izanen da; horretarako Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoa bere baitan hartuko dituen instituzio egitura bakar eta subiranoa sortzeko urrats eraginkorrak gaurdanik emanez.

4.-Helburu hori bera duten indar politiko eta sozial desberdinek bat eginez gero, instituzio-egitura gailen horren sorrera bidean, gaur egungo zatiketa instituzional eta estatuzkoak gainditzeko asmoa duen ekimen oro txalotu, babestu eta bultzatzeko konpromezu publikoa hartzen du Euskadi Ta Askatasunak. Eta hartara, beste hainbesteko konpromezu, esfortzu eta ahalegina eskatzen orainartean zeregin horretatik urrun edota hurbiltzeko orduan uzkur eta epel ibili direnei.

5.-Euskal Herriaren eskubide demokratiko

eta eraikuntzaren aldeko indarrei oinarritzko eta gutxiengo beharren inguruan hitzarmenak lotu eta dinamikak eragin behar dituzte.

6.-Euskal Herria eta Espainia zein Frantziaren herri proiektuak aurrez-aurre jotzen dute. Mende luzetako gatazkak argiro erakutsi digu euskal herritarroei tarteko lekuri ez dagoela. Euskal herritar gisa aurrera egin ala Espainia eta Frantziaren menpean herri gisa desagertu. Beraz, ezinbesteko deritzogu goiko puntuekin adostasuna agertu duten guztiek Espainia eta Frantziaren asmo menperatzaileak defendatzen eta bultzatzen dituztenekiko loturak eta hitzarmenak haustea. Subiranotasunaren aldeko apostu argi eta erabatekoa egiteko garaia da. Euskal Herria desagertaraztea helburu duten indar politiko horiekiko akordio eta loturak hausteko garaia da. Ondorioz, Espainiaren eta Frantziaren eraikuntza eta Euskal Herriaren deuseztapena helburu duten alderdi, egitura instituzional eta errepresiozkoekin dagoen hitzarmen oro bertan behera uzteko garaia da.

7.-Euskal Herriaren egoera, dauden aukerak eta subiranotasunentz abiatzeko nahia kontutan hartuz Euskadi Ta Askatasunak bere aldetik mugarik gabeko eraso armatuen etenaldi orokor bati ekiteko asmoa jakinarazten du, bere zereginak ohizko hornitze-lan, egituren mantentze eta balizko enfrentamenduetan defenditzeko esku-bidera soil-soilik murriztuz. Su-eten orokor horrek 1998ko Irailaren 18an izanen du hasiera.

8.-Guztionez helburua Euskal Herriaren errealitatea, eskubideak eta askatasunean hartutako erabakiak errespetatuak izatea delarik, eta Euskadi Ta Askatasunaren helburu eta desioa euskal gizarteak Euskal Herriaren independentzia eskuratzearan ardura osoki bere gain har dezan izanik, jasoko dugun erantzuna emandako urratsaren tamaina eta neurri berekoa izango delako esperantzaz beterik, jakinarazi nahi dugu une honetatik aurrerako gertakizun eta urratsek aginduko dutela etenaldi horren behinbetirakotasuna.

**GORA EUSKADI ASKATUTA!
GORA EUSKADI SOZIALISTA!**

JO TA KE INDEPENDENTZIA LORTU ARTE!

Euskal Herrian, 1998ko Irailan